OSASUN SAILA

6202

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko ebazpenari dagokiona: «867/2008 Ebazpena, urriaren 6koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian oposizio aldia txanda ireki bidez gainditu duten izangaien behin betiko zerrenda amaierako puntuazio ordenaren arabera argitaratzeko agintzen duena. Zerrenda hori Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko osasun zerbitzuetako erakundeak destino dituzten osasun teknikari laguntzaileen lanbide taldeko Erizaintzako laguntzaileen kategorian (Erizaintzako laguntzaileen eta Osasun Mentaleko begiraleen lanpostu funtzionalak) lotura estatutarioa lortzeko oposizioaldia gainditu dutenena da.»

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 155/1993 Dekretuaren 24.2.a) artikuluan xedatzen denez, testuingurutik erraz argitzen diren hutsak eta omisioak eta, ondorioz, xedapen, egintza edo iragarkien esanahia aldatzen ez dutenak, argitaratzeko agindua eman duen organoak konponduko ditu, nahasbiderik ez sortzeko komeni denean. Horretarako, testu osoa edo kasuan kasuko testu-zatia zuzenduta argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren urriaren 6ko 867/2008 Ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian oposizio aldia txanda ireki bidez gainditu duten izangaien behin betiko zerrenda amaierako puntuazio ordenaren arabera argitaratzeko agintzen du, hain zuzen ere Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko osasun zerbitzuetako erakundeak destino dituzten osasun teknikari laguntzaileen lanbide taldeko Erizaintzako laguntzaileen kategorian (Erizaintzako laguntzaileen eta Osasun Mentaleko begiraleen lanpostu funtzionalak) lotura estatutarioa lortzeko oposizioaldia gainditu dutenen zerrenda. Agindu hori 2008ko urriaren 27an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 205. zenbakian, eta bertan lehen aipatutakoen moduko akatsa atzeman direnez, ondoren egiten da dagokien zuzenketa:

III. eranskinean, Ebazpen horren osagarriaren 198. orrialdean, honako hau dioenean:

Destinoa

Ezk.-Enk. Esk.-Mamariga (Osasun-zentroa)
C. Ezk.-Enk.-Cruces (Centro de salud)

Honako hau esan behar du:

Ezk.-Enk. Esk.-Mamariga (Osasun-zentroa)
C. Ezk.-Enk.-Mamariga (Centro de salud)

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

6202

CORRECCIÓN DE ERRORES de la Resolución 867/2008, de 6 de octubre, del Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se ordena la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la relación definitiva de aspirantes por el turno libre, que han superado la fase de oposición, por el orden de su puntuación final, para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Auxiliar Enfermería (puestos funcionales de Auxiliar Enfermería y Monitor Salud Mental) del Grupo Profesional de Técnicos Auxiliares Sanitarios en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

El artículo 24.2.a) del Decreto 155/1993, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones materiales que se infieran claramente del contexto y no constituyan modificación o alteración del sentido de las disposiciones, actos o anuncios, pero cuya rectificación se estime conveniente a fin de evitar posibles confusiones, se salvarán por los órganos que hayan ordenado su inserción, instando la reproducción en el Boletín Oficial del País Vasco del texto o la parte necesaria del mismo con las debidas correcciones.

Advertidos errores de dicha índole en la Resolución 867/2008, de 6 de octubre, del Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se ordena la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la relación definitiva de aspirantes por el turno libre, que han superado la fase de oposición, por el orden de su puntuación final, para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Auxiliar Enfermería (puestos funcionales de Auxiliar Enfermería y Monitor Salud Mental) del Grupo Profesional de Técnicos Auxiliares Sanitarios en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 205, de 27 de octubre de 2008, página 26127, se procede a su corrección:

En el anexo III, página 198 del suplemento de la citada Resolución, donde dice:

Destino

Ezk.-Enk. Esk.-Mamariga (Osasun-zentroa)
C. Ezk.-Enk.-Cruces (Centro de salud)

Debe decir:

Ezk.-Enk. Esk.-Mamariga (Osasun-zentroa)
C. Ezk.-Enk.-Mamariga (Centro de salud)